

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Igantziko eskolara bisita egin du Hezkuntza kontseilariak

Azpiegituretako arduraduna eta herriko alkatea ere izan dira bertan eta ikastetxeko zuzendariak erakutsi die zentroa

Astelehena, 2019.eko martxoak 25

Haur eta Lehen Hezkuntzako 60 bat umek ikasten dute Bortzirietan dagoen Igantziko eskola publikoan. 1977ko eraikinak lehen hezkuntzako ikasgelak ditu beheko solairuan eta lehen hezkuntzakoak goiko solairuan. Gainera, taldekatzeak egiteko gelak, ikus-entzunezkoena, liburutegia, soinketa lekua eta bestelako espazioak dituzte. Kanpoan aterpea duen patioa dute.

Bisita egindakoan bilera izan dute Maria Solana Arana Hezkuntza kontseilariak eta Eneko Ardaiz Ganuza Hezkuntza Azpiegituretako zuzendariak Igantziko alkatea den Juan Carlos Unanua Navarrokekin bai eta eskolako zuzendari Joxean Ortegarekin ere. Batzarrean, zentroak dituen hezkuntza-beharrei hobeki erantzuteko, eskolako espazioen berrantolatzeaz hausnarketa egin dute.



Ezkerretik eskuinera, Hezkuntzako ikuskatzaile Mari Cruz Delgado, Juan Carlos Unanua, Solana kontseilaria, Joxean Ortega eta Eneko Ardaiz.